



Pedro Mari
Otaño
Barriola

1857-1910

BIDeGILEAK

Egilea:

Xabier Euzkitze

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Antonio Zabalarri. *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua* (I eta II). Sendoa, Oiartzun, 1993
- Zizurkilgo Hernandorena Kultur Taldeari. *Pello Mari Otañoaren arnasa 1857-1910*, 2010
- Pello Esnali
- Anjel Mari Peñagarikanori
- Bergarako Udal Artxiboari

Zuzendaritza:	Jerardo Elortza
Argitaraldia:	1.a, 2010eko abendua
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • www.eps-grupo.com
Inprimaketa:	Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz • www.graficassantamaria.com
ISBN:	978-84-457-3108-6 (Lan osoarena) 978-84-457-3111-6
L.G.:	VI - 542-2010



PEDRO MARI OTAÑO BARRIOLA

(1857-1910)

Intxaurrondotik onbura

ZIZURKILGO LEHEN URTEAK

Pedro Mari Otaño Barriola Zizurkilgo Errekalde baserrian jaio zen 1857ko urtarrilaren 26an, iluntzeko bederatzietan, Mikaela arreba bikia baino hiru ordu geroago. Biak medikuak bataiatu zituen. Hiltzeko arriskuan egon, nonbait. Arrebatxoa hamalau hilabete zituela hil zen. Pedro Marik ez zuen zahartzeko zoririk izan, baina 53 urte harra-patu zituen. Bizkitartean, handik mende batera ere gogoan izateko moduko lanak egin zituen, liburuxka honetan laburbil-duko ditugunak.

Juan Pedro eta Juana Bautista izan zituen gurasoak. Bederatzi seme-alaba izan zituzten, Pedro Mari hirugarrena izan zelarik. Bertso tradizio handikoa da Zizurkil ingurua. Pedro Marik, gainera, familian bertan zituen aurrekariak. Eta ez edonolakoak! Beste Pedro Mari Otaño bertsolari bat izan zen aurrez, Larraulen jaioa: Pedro Mari Otaño, *Errekalde zaharra*, liburuxka hau eskaini diogunaren aitona. Bertsolari egokia, taxu handikoa izan zen oso, gure garaira iritsi diren ale bakanak aztertuta. Aita Juan Pedrok ere bertsolari izena me-rezi izateko adina dohain bazuen. Haren



Juana Mikela Otaño,
Pedro Mariren izeba



Argazkiaren erdian,
osaba Joxe Bernardo



Izeba Juana Mikela eta Plazida,
lehengusina

anaia Joxe Bernardo, berriz, Pedro Mari handiaren osaba, bere garaiko bertsolaririk hoberenekin ibilia zen: Xenpelar, Pello Errota, Txirrita... Joxe Bernardok izan zuen bertsoan franko poliki moldatzen zen alaba bat ere, Plazida. Honek 18 urte besterik ez zuela, etxeko sukaldean, adinez aurrera zihoala esan omen zion aitari eta, ezkontzeko asmoa zuenez, dote-txoa prestatzen hasteko. Joxe Bernardok bertso hau kantatu omen zion:

Ezkondu behar denala,
ho(r)i den baloria!
Hemezortzi urte den
hire edadia.
Pikara, gaizki hazi,
lotsarik gabia,
hik aberastuko naun,
lehen banaiz pobria.

Eta alaba Plazidak bertsoan erantzun:

Aita, zahartu ta gero
garai hobia ez da,
neska gaztiak ere
badu bere kezka.
Ilea zuriturik
nobiorik ez-ta,
orduban alperrik da
soinuba ta festa.

Grazia handiko bertsoa. Amona Mikela, izen bereko arreba eta anaia Bernardo ere bertsoan poliki moldatzen ziren. Aurrekari horiekin, giro horretan, ezin harritu Pedro Mari Otaño, Errekaldeko mutiko ernea, bertsolari irtetea. Jaiotetxean igarotako urteek nabarmen markatu zuten, ezbairik gabe.

Lehenbiziko arnasa
hartu zan lekura,
zeinek ez du izango
joateko ardura.
Txoriak kabiari
nahi dion modura,
nik maitatzen det beti
txoko eder hura.

Amets bat izeneko sailean ere sorlekuaz
mintzo da:

Ni jaio nintzan euskal lurreko
leku pozgarri hauetan,
eta euskera irentsi nuen
lehenbiziko arnasetan,
amak sehaskan nedukanian
edo bere besuetan,
kontu politak esanez beti,
kantatuaz batzuetan,
geren aitonak moldatutako
hitz neurtu ta bertsuetan.

Aitaren aldetik, Otañotarrengandik, bertso-
laritzaren iturritik oparo edan zuen Pedro
Marik, asetzeko lain. Baserri eta lan giroa
ere haien bitartez ezagutu eta bizi izan zuen.
Amak eta haren aldekoek, Barriolarrek,



Joxe Bernardo,
Donostiako *El thun*
thun aldizkarian (1894)



Juan Pedro Otaño, Pedro
Mariren aita



Anaia Bernardo



Eserita, ezkerretik hasita, Pedro Mariren anaia bi,
Juan Pedro eta Bernardo

beste arrasto garrantzitsu bat utzi zuten
Pedro Marirengan. Liberalen pentsamoldea
eta goi mailako kultura, garai hartan batere
ohiko ez zena. Nahasketa aberasgarria.



Errekalde baserria, 2010eko neguan

KARIDADEKO BENTARA ETA DONOSTIARA

Sortetxea oso maite izanagatik, Errekalden jendea gehiago zen lekua baino. Ezin denak kabitu. Horregatik, Pedro Marik zazpi urte zituela, sendiaren zati batek Errekalde baserria utzi beharra izan zuen. Otañotarrak behartsuak ziren, ordea, eta haien ahaide eta adiskideen artean eraikitako etxe batean jarri ziren bizi izaten. Errukiaren emaitza izaki, izena ere halaxe jarri zioten: *Karidadeko Benta*. Zizurkildik eta Adunatik zetozen

bideak elkartzen ziren parean altxatu zuten, taberna izateko kokagune aproposa. Hamasei urtera bitartean, Errekaldetik Karidadeko Bentara etengabeko joan-etorrian bizi izan zen Pedro Mari.

Gero, 1873tik 1875era bitartean, ilunpetatik irten ezinik ibili ziren Otañotarrak. Batetik, Zizurkildik Donostiara joan behar izan zuen familiaren zati batek, aita tartean. Ama, aldiz, bitxia bada ere, Karidadeko Bentan geratu zen. Bestetik, Joxe Domingo anaia hil zitzaien.

Pedro Mari 18 urtera heldu zenean ere garai zailak ziren. Familia pobrea, lanik ia batere ez eta, gainera, bigarren karlistaldia unerik beroenean zegoen. Zuen adinarekin, bistan denez, gerrara joan behar izateko arrisku bizian zen. Ziur aski, hori erabakigarria izango zen Ameriketara hain gazterik joan zedin. Gerrari iheska joana izango zen.

Hargatik gerok batere kulpik
ez genduela ezertan,
txit urrutira jua biharra
izandu nuen batetan;
oso gazterik aurkitu nintzan
Amerikako Panpetan...

Aita Amerikan bi aldiz izana zen. Apenas diru handirik egin zuen, baina semeak ez zuen irtenbide hoberik ikusi izango. Hain segur, aitak joan aurretik emandako aholkuak izango dira *Lagundurikan danoi* bertso sorta sonatuan bildu zituenak. Hona sail osoa:

Lagundurikan danoi
gugatik hil zanak,
seme, hazi zaitugu
aitak eta amak,
beti zure gidari
izandu geranak.
Orain gurutze honen
oinetan esanak
ondo goguan hartu
behaituzu danak.

Zu Ameriketara
joatea hemendik,
Jaunak hala nahi badu,
zer egingo det nik?
Han ez dezu izango
aitik eta amik,
baina ez zera galduko
nunahira joanik,
ez bazaizu ahaztutzen
gaur hemen esanik.



Errekalde baserria, 2010eko neguan



Errekaldetik dagoen ikuspegia

Gorde zazu buruan
eta bihotzean
aitak zer esan zizun
haruntz abitzean,
bitarteko harturik
Jesus gurutzean.
Jainkoa ta aita-amak
batek ahaztutzean,
ez leike ondo izan
denbora luzean.



Karidadeko Benta, aspaldi eraitsia.
Beste etxe bat eraiki zuten leku berean

Ez nizuke utziko
joaten, egietan,
gure erlijioa
ez balitz han bertan.

Iritsiko baitzera
hain urrutietan,
herri ta elizarik
ez dan tokietan,
oroi zaitez Jainkoaz
leku guztietan.

Seme, izan goguan
zure gurasuak
eta uzten dituzun
senide gozuak,
jaio zinan tokiko
mendi ta basuak,
euskarazko otoitzak
edo errezuak,
erakutsiak zuri
amatxo gaixuak.

Iritsi da ordua
joan behar dezuna,
badakizu aita ta ama
hemen dauzkazuna.
Ez dezazula ahaztu
gaur hemen entzuna,
hitz baterako hau da
eskatzen zaizuna:
izan zaitez nunahi ta
beti euskalduna.

Ameriketarantz abiatu aurrez, honela egin
zion agur Pedro Marik osaba Joxe Bernar-
dori:

Agur, nere osaba
ta parientiak!
Ariyo, adiskide
ta lagun maitiak!
Pena ematen dit zuek
utzita joatiak,
berriz etortzen banaiz,
ez itxi atiak.

Orduan ere ez zen erraza izango gerrari
ihes egitea. Inolaz ere, mendiak pasatu eta
mugaz bestaldeko porturen batean ontzi-
ratu beharko zuen.



Ameriketarako joan-etorriak

Buenos Airesko *Laurak bat* elkartearen lehen egoitza

LEHEN BIDAIA (1875-1879)

1875. urtean joan zen Pedro Mari estreinakoz Ameriketara. Argentinaz gain, Brasil eta Uruguai behintzat pasatu zituen, *La Baskonia* aldizkariak argitara eman zuenez. Bizimodua ateratzeko egin behar izan zituen lanei buruz, ostera, hau dio: «Panpetan alambre-sareak jarri, labekari, liburu edukitzaile —finantza kontuak—, ferratzaile eta... poeta». Ez dakigu gainerako lanetan nola moldatu zen Errekaldeko semea. Hitzari distira ateratzen, hori bai, inork gutxik izan du Pedro Mariren graziarik. Artzain aritu zela ere badakigu, berak aitorturik:

Orain artzantzan Ameriketan,
arrantxo baten onduan...

La Baskoniak lehen bidaiatik noiz itzuli zen ez du zehazten, denbora gutxi egin zuela bai baina: «bere jatorrizko Gipuzkoara itzuli zen, herriminak pixka bat estutu orduko».

Bigarren karlistaldia 1876 bukatu zen, eta urte berean deuseztatu zituzten Foruak. Horren eraginez, hemengo mutil gazteak soldadutza egitera behartuak ziren. Zizurkilgo soldadu-gaien bi zerrenda egin zituzten. Lehenbizikoan ageri zen Pedro Mari, baina bigarrean, auskalo zergatik, ez. Zama hori gainetik kendu zuela jakitean, etxerako bidea hartu zuen. Badakigu 1879an etxean zela. Ama hil zenean hemen zen, beraz, nahiz eta haren heriotza eta hiletez aipamenik egin ez aita hil arte.

AMERIKETARAKO BIGARREN BIDAIA (188?-1890)

Ez dakigu ziur zein egunetan abiatu zen Otaño Ameriketarantz. Nolanahi ere, lehen bidaiatik herriminez itzuli arren, ez dirudi sorlekuan denbora askorik egin zuenik. Bigarren honetan Pasaiatik abiatu zen. Baporean sartu orduko, bertso hau kantatu zion osaba Joxe Bernardok. Pottoak potto, zinez hunkigarria:

Nere iloba, egin bazaizu
Amerikara joan nahia,
desio dizut izan zazula
gutziz biaje alai.
Hara joatian eiten bazaizu
honera etorri nahia,
Errekaldian han egongo da
zu jaio zinaden ohia.

Bigarren aldi bere borondatez joan zela esan ohi da, bertso batean hori aipatzen baitu. Borondate bortxatu samarra, inondik ere. Euskal Herrian atarramentu onik izan balu, nekez pentsa liteke berriz abiatuko zenik. Edozein gisaz, ez du derrigorren aipamenik egiten bertsoan, «hemengo suertez» aspertu izanarena bai baina:

Amerikara nua
neure borondatez,
aspertu naizelako
hemengo suertez.
Honetara ezker
joan bihar det nahit'ez,
hemen gelditze'iranak
ondo bizi bitez.

Ameriketara aspaldi joandako ahaide bat bazuen Pedro Marik, osaba Juan Joxe. Haren berririk aspaldi ez-eta, honela erantzun bide zion aitonak:

Lehenago ere seme bat
badi(a)t Amerikan,
orain hogeit bat urte
joana hemendikan.
Baldin topatzen badek
haren biderikan,
esaiok aita bizi
dala oraindikan.

Agindua zintzo bete zuen bilobak, Santa Feraino joan baitzen osaba bisitatzer. Benetan bitxi eta gustagarria da sail honetakotzat jo izan dugun hirugarren alea ere. Dotore ematen du hango bizimoduak eskaintzen zizkien «luxuen» berri:

Kafia hartutzen det
egunian bi aldiz,
eta nahi dedanian
pasiatu zaldiz.
Jan-edanen faltik ez,
osasuna, berriz,
hau bai bizimodua...
Donostian balitz!

Pedro Marik, asmaren eraginez-edo, arazo handiak izaten zituen kanturako. Eztarriz ere ez omen zen batere jantzia, horregatik deitzen zioten *kattarro*. Gaur egungo mikro eta bozgorailurik gabe, makur handia zen hori bat-baterako dohain apartak zituen bertsolariarentzat. Txanpon horrek ifrentzua ere badu, ordea. Eztarri txar hari zor diogu, hain segur, hainbeste bertso sorta eder eta oparo idatzi izana. Zorigaitzez, asko izango dira galduak ere.

OSTERA DONOSTIARA (1890-1898)

Ezkontza eta lehen semeak

Tarteka berri tristeak iristen zitzaizkion Pedro Mariri: Foruak galdu izanaren ondorio




Lurak bat elkartearen bigarren etxea

mingarrienak, esate baterako. Horrek ere izango zuen bere eragina 1890. urtean berriz Euskal Herrira itzultzeko erabakia har zezan:

...ama galdu ez dezan
norbaiten gaiztakeriak,
emaidazute besarkada bat,
beregana joan nahi diat.

Aitarekin Donostiako Amara auzoko 2. zenbakian jarri zen bizi izaten. Orduan ezagutu zuen Maria Magdalena Alberdi Deskarga, *Malen*, ondoren emazte izango zuena. Zenbaiti harrigarri gertatuko ba-



Joxe Bernardo Otaño eta Pello Errota



Joxe Zapiain, Pello Errota eta Pedro Mari Otaño,
1896an Arrasateko euskal jaietan
(Eustakio Agirreolearen argazkia)

zaio ere, Pedro Marik ez zuen bertso-rik izan harentzat, ez ezkongaitan, ez ezkondu ondoren ere. Antonio Zabalaren iritziz,

«harenganako maitasuna ez zuen bertso-gai bihurtu nahi izan». Bilintxen kontrapuntu bitxia, hark *amore kontuak* gai nagusi izan baitzituen. Kontuak kontu, Amerikatik itzuli eta urtebete gabe, 1891ko ekainaren 11.ean ezkondu zen Pedro Mari Malenekin, Donostiako Artzain Onaren parrokia eraiki berrian. Bikoteak hiru seme izan zituen Donostian: Bernardo (1892), Migel (1894) eta Josetxo (1896). Pedro Mariren ogibideari dagokionez, urte haietan dendari, eskribau eta enplegatu gisa lan egin zuela bada-kigu. Baita tabernari ere.

Bertsolari garaikideekin batean eta bestean saio gogoangarriak egiteaz gain, idatzizko lan bikainak egin zituen Pedro Marik urte haietan. Tolosako Ramon Artola idazleak hauxe zioen 1891. urtean *Euskal-erria* aldizkariak argitara emandako bertsoetan: «On Pedro Mari Otaño, euskal-izkribalari berriyari». Ordainetan, Otañok *Amets bat* izeneko poema luzea eskaini zion tolosarrari: «On Ramon Artola euskal-izkribalari zaharrari ordainez». Sortaren azken alean, Euskal Herrira bueltan zerk ekarri zuen aditzera ematen du zizurkildarrak:

Ama euskerak hau esan zidan
jarririk begi alaiak,
horregatikan nakar honera
berari lagundu nahiak.
Gutxi nezake, oso txikiak
dira nik dauzkadan gaiak,
baina pozkiroz egingo ditut
gauak, egun, aste, jaiak;
leku pixka bat Euskal Herrian
eskatze'izutet, anaiak.

AMERIKETARA HIRUGARREN ETA AZKEN BIDAIA (1898-1910)

Despedida historikoa

Etxera ekarri zuten zergatiak pisuzkoak izan arren, Pedro Marik hirugarren aldiz itsasoaren bestaldera joatea erabaki zuen. Ez zuen aurreko bidaien antzik izango, jakina, hirugarren horretan emaztea eta hiru seme berekin eramane beharko baitzituen. Pedro Marik eta Malenek Ameriketara joateko asmoa zutelazioten zurrumurruek kezka eta ezinegon nabaria eragin zuten gizartean. Otaño hemen atxikitzeke asmoz, harentzat lanpostu bat sortzeke proposamen bat ere izan zen: bertso eta



Pedro Mariren marrazkia,
El thun thun aldizkarian
(1894)

abesti herrikoien letrak bildu, sailkatu eta argitaratzea. Eginkizun aproposa, ez bairrik gabe. Ez zuen aurrera egin, ordea. Hara nola azaldu zuen *La Baskonia* aldizkariak: «Gipuzkoako Diputazioari herri kanten biltzaile postu bat sortzea eskatu zioten, baina diputatu karlistek ezin zuten ezer egin, Otaño liberala baitzen. Eta diputatu liberalek ere ez zezaketen deus egin, poeta desordenatu hutsa baitzen». Beraz, proposamenak ez zuen aurrera egin eta ezin esan liteke Pedro Mariri hemen eusteko ahalegin handirik egin zutenik. Paradoxa bada ere, Ameriketara joaten bai, lagundu zioten. Donostiako lore-jokoak antolatzen zituen elkarteak eta beste erakunde batzuek bultzaturik, diru-bilketa bat abian jarri zuten, senar-emazte eta semeen bidaia ordaintzeko. Diru-bilketa 1898ko urtarrilaren 21ean itxi zuten eta astebeteren buruan abiatu ziren Argentinarentz.



Larriya erromantza, Migel Oñateren doinuaz eta Otañoren bertsoz egina

Abiatu aurreko gauean, hamar eta erdiak aldera, Donostiako Orfeoia joan zen Pedro Mari, Malen eta hiru semeak zeuden etxera, saio hunkigarri bat eskaintzera. Amaitu zutenean, Otañok hiru bertso kantatuz eman omen zizkien eskerrak. Ondorengo besarkada eta oihu artean, Orfeoiaren zuzendariak dokumentu bat eman zion, oho-rezko bazkide izendatu zutela zioena.

Biharamunean egundoko jendetza bildu zen Pasaiara, Otaño handiari agur esatera. Beste zenbait bertsolarirekin batera, han zen Joxe Manuel Lujanbio *Txirrita* ere.



Ilbeltz hilaren hogeita seian, San Polikarpo eguna, makina jende Antxo aldera pausua eman deguna, Amerikara dijalako gure Pedro Mari ona, ziartu dakit familiatik aita faltatzen zaiguna.

Pedro Marik ere kantatu zuen:



Ez nua borondatez, beharrak narama, nerekin daramazkit hiru ume ta ama.

Inork inguratu nahi
 badu neregana,
 pozik egingo diot
 posible dedana.

Pasaiara bildutako en txalo eta malko artean
 ezkutatu zen ostertzean *Corsica* baporea.

ARGENTINAKO AZKEN URTEAK

Otaño-Alberdi sendia Panpetako *Pehuajó* herrira joan zen. Han hiru alaba izan zituzten Pedro Marik eta Malenek: Teresa (1899), Joana (1903) eta Malentxo (1907). Urte gutxi lehenago borrokaldi latzak izandako lekua zen *Pehuajó*, *Armadaren* eta bertako *Malpuche* eta *Ranculchez* indioen arteko gatazka armatu gogorrak. Pedro Mari eta sendia han pausatu zirenerako leku baketsu eta atsegina zen, baina. Hau zioen Alberto Azkona epaile argentinarrek, Otañoren biografia idatzi zuenak: «santutegi bat da lanera etorri nahi duten borondate oneko gizon-emakume denentzat, bakean bizi, familia hazi eta gizaki gisa garatu nahi duten guztientzat». Ez dakigu zer ote zioten bor-txaz zapaldu eta desjabeturiko indioek...



Pedro Mari Otañoren eskuizkribuak. Euskara irakasteko berak asmatutako sistema da, J. Azkuek eta J. Arrastok aurkitu berria

Distantziak jokamoldeak nabarmen bal-dintzatzen ditu, antza. Nekez uler daiteke bestela Pedro Marik, euskaltzale porrokatua izanik, Bernardo semeari gutunak gaztelaniaz idatzi izana edo Teresak, alaba zaharrenak, erretiroa hartu ondoren ikasi izana



Artzai mutilla operaren antzezpena, Buenos Airesen

euskara. Amari buruz, ostera, hau idatzi zuen Teresak berak: «gure ama gaztelaniaz hezia zen. Lurralde berri honetan euskaraz kantatzen zuen, baita otoitzak eta errietak ere, baina gutxi gehiago. Bere euskaltasuna erdaraz inposatzen zuen emakume euskaldun bikaina zen. Senarra hil ondoren, zurezko kutxa batean gorde zituen haren eskuizkribu guztiak, familiak oraindik gorderik dituenak».

Gizakion berezko kontrasteak zituen, bistan denez, Pedro Mari handiak. Izan ere, euskara-irakasle lanetan ere ari izan zen Argentinan. 2010. urteko uztailan, Argentinara joan-etorri labur bat egin zuten Joxin Azkue eta Julian Arrastoa zizurkildarrek. Otañoren biloba *Txuri* bisitatu zuten, eta haren paper zaharren artean arakatzeko aprobetxatu. Zerbaiten

susmoa bazeramaten, noski, baina uste baino altxor handiagoa aurkitu zuten: Pedro Marik euskara irakasteko erabilitako sistema: eskuz idatzitako oharrak, aditzak, esaldiak... Otañok berak *Cátedra del Bascuence* deitu zion. Jada osorik eskaneatua dute, inork aztertu nahi balu ere. Patxadaz irakurri beharrekoa izango da. Zorionak, Joxin eta Julian!


GARAI OPAROA

Azken egonaldi hori zinez emankorra izan zen Pedro Mariren bertso gintzan. 1900. urterako plazaratuak zituen *Lagundurikan danoi*, *Zazpiak bat* eta *Amerikako Panpetan* bertso sailak. Horietan eta *Mutil koskor bat* eta *Txepetxa* bertso sortetan dagoke Pedro Mariren funtsa. Otañok, baina, bertso jardun soiletik irteten ziren lanak ere egin zituen. Operarako letrak, esate baterako. Felix Ortiz San Pelaio musikariarekin egin zuen topo. Azpeitiarra sortzez, munduz mundu zebilen karlistaldiaz geroztik. Azpeitiarrak *Artzai mutilla* opera egiteko laguntza eskatu zion Pedro Mariri. Hori da Euskal Herritik kanpo eta euskaraz sorturiko lehen opera. Beste batzuk ere egin zituen haren ondoren.

Aitaren heriotzak bortizki erasan bazion ere, 1903. urtean lau poema eder argitaratu zituen *La Baskonia* aldizkarian. Hurrengo urtean sendi osoa Pehuajótik Buenos Airesera joan zen, Lima kaleko 969 zenbakira. Han zirela argitaratu zuen *La Baskoniak* Pedro Mariren *Alkar* liburua. Horrez gain, *Laurak bat* elkartearen egoitza berriaren inaugurazioan hitzaldi sonatu bat eman zuen, gaztelania dotorean hasi eta euskara aberatsean amaituz. Mintzaldi abertzalea izan zen, euskara eta Euskal Herriarentzat justizia eskatuz. Euskararen ikerkuntzan ari izandako Euskal Herriko eta nazioarteko zenbait pertsona garrantzitsuren aipuak egin zituen: Vinson, Bonaparte, Humboldt, Larramendi, Campion... Geroxeago, *Laurak bat* erakundeak berak *Euskararen Katedra* sortu zuen, eta Pedro Mari izendatu lehen irakasle.

PEDRO MARIREN IRITZI POLITIKOAK


Otañoren bilakaera politikoa begien bistakoa da. Etxean liberalen iturritik edan ondoren, errepublikazale eta foruzale agertu zen gero, eta azken urteetan abertzale. Argentinako azken urteetan mezu erabat



abertzaleak zabaldu zituen, hitzaldi nahiz bertsoen bidez. Sabino Arana Goiriren aipamenak behin baino gehiagotan egin zituen, eta argi dago haren ideiak erabat bere egin zituela. Hau idatzi zuen, besteak beste, Sabino Aranaz:

Jaso dezagun bere bandera,
egin zagus ahalegina,
ez dakitenai erakutsiaz
maisuzanaren dotrina.

Deigarri gertatzen da Argentinatik hain kartsuki aritu izana Euskal Herriaren batasunaz, mugaren bi aldeetako euskaldunetz, bitan banatzen gaituen Bidasoa ibaiaz, euska-



Artzai mutilla operaren antzezpena, Buenos Airesen

raren makurrez... Honen adibide dira 1900. urtean idatziriko lau bertso, *Zazpiak bat* izeneko sorta osatzen dutenak. Beste hainbat egilek ere argitaratu izan dituzte geroztik, baita Orixek berak ere, *Euskaldunak* obra sonatuan. Horrek zenbait nahasmen sortu izan du, asko baitaude bertso horiek Orixek eginak direlakoan. Honatx lau aleak:

Zazpi ahizparen gai dan oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
Goraiziekin bereizi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zagon euskera,
goraiztzat Bidasoa,
ibai koxkor bat besterik ez da,
hutsa balitz itsasoa!
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga deitzen da Pausoa,
zergatik izan behar ez degu
famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landariak
bezela gera Bidasoaren
bi aldetako jendiak.
Berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legiak,
Ama euskerak magal berian
hazitako senidiak.



Otañoren heriotza eta honen oihartzunak

Pedro Mariren hiru alabak

ARGENTINAN ETA EUSKAL HERRIAN IZAN ZUEN ERASANA

Lehen ere esana dugu Pedro Marik askotariko lanak egin izan zituela. Azkenak *Perez* izeneko herrira eraman zuen. 1910eko urtarrilean gorriak ikusi behar izan zituzten, otien eraunsi izugarri bat izan baitzuten hango soroek, baina lortu zuten izurria menpean hartzea. Handik gutun bat idatzi zion Bernardo semeari: «Azken ibilerek nabarmen erasan diote nire osasunari... Zahartzarora hurbiltzen ari naiz benetan, hilaren 26an beteko baititut 53 urte. Aurrera!» Asmak arazo handiak eragin arren, Otañok baikor eusten zion. Ez

zuen uste, noski, heriotza hain gertu zuenik. Handik bi hilabetera Buenos Airesko *Barrio del Once* izenekora joan zen, *La Baskonia* aldizkarirako lan bat zuzentzera. Martxoaren 18an itzuli zen Perezera. Han izan zuen txakalaldiak kezkatu-rik, maiatzaren 5ean Bernardori deitu zioten, berehala joan zedin. Biharamunean Rosariora eraman zuten. Hantxe hil zen, bihotzekoak emanda. Gorpua Rosarioko hilerrian geratu zen hasieran, baina ondoren, familia emeki-emeki La Platara bildu zenez, hara eraman zituzten Pedro Mariren hezurrak.

Otaño handiaren heriotzak sekulako zirrara eragin zuen. Argentinako euskaldunentzat kolpe latza izan zen. *La Baskonia* aldizkariak

hil kanpaiak jo zituen eta bertsolari handia-ri buruzko erreportaje berezi bat argitaratu zuen, bizitzaren laburpen bat egin, olerki hautatu batzuk erantsi eta euskal gramatika berri bat taxutzen ari zela jakinaraziz.

Euskal Herrira geroxeago heldu zen berria, baina ez zen txikiagoa izan hemen eragin zuen samina. Egunkari eta aldizkariak asko idatzi zuten zizurkildarrari buruz, etengabeak izan ziren haren ohorez idatziriko bertso eta artikulua. Txirritak bertso honen bitartez adierazi zuen bere nahigabea:

Zizurkilgo seme bat,
hain gizon umila,
euskaldun jakintsua,
eskolaz abila,
zenbait saio egina
lege zaharren bila;
Nik aginduta ez da
Jaungoikuak hila,
zeruaren erdian
gertatu dedila.

Etxekeok ere tinko eutsi zioten Pedro Mariren memoriari. Zerbaitegatik dirau hain bizirik hil zenetik mende bat igaro ostean.

SISTOLEA ETA DIASTOLEA

Ameriketan zegoelarik ere, beti Euskal Herrira begira bizi zen Pedro Mari, eta sekula ez zuen burutik kendu hezurak hemen uzteko ideia.

2010. urteko udaberrian, bertsolari handia-ren heriotzaren mendeurrenean, hainbat ekitaldi antolatu zituen Zizurkilgo *Hernandorena Kultur Taldeak*. Batetik, liburu bat argitaratu zuten: *Pello Mari Otañoren arnasa*. Han aurkitu dut *Intxaurrondotik onbura*, lantxo honen azpтитulu gisa baliatu du-
dana, aski ongi laburbiltzen baitu Otañoren bizitza eta lana. Jardunaldi haietan, Pello Esnal bertso aditu eta ikertzaileak hitzaldi mamitsu bat eman zuen, Otañoren izaera-
ren alderdi bat modu bitxian azalduz, haren bihotz taupadetatik abiatuta: «bihotzak bi mugimendu egiten ditu taupada bakoitzean, sistolea eta diastolea. Batak, uzkurtzean, odola ponpatzen du, eta besteak bere leku-
ra ekartzen. Taupada bakoitzean errepika-
tzen diren bi mugimendu horiek ikusten di-
tut Pedro Marirengan. Hasieran Errekalde baserria eta Karidadeko Bentaren artean banatzen ziren haren bizipen eta ame-

tsak. Geroxeago Donostiatik Zizurkilerako joan-etorrietan. Eta bizitzaren azken zatian Amerika eta Euskal Herriaren artean».

Pello Esnalek hain egoki azaldu zuen hori argi ikusten da Pedro Mariren bertso sortarik ezagunenetako batean, *Amerikako Panpetan* izenekoan. Zizurkilgo Errekalde baserriaren atariko intxaurrondoa eta Argentinako txabola aurreko onbua (ombú) erabili zituen, ia egunero pentsamendua- ren bitartez batetik bestera egiten zuen bidaia azaltzeko.

Euskal Herriko lur maite hartan,
jaio nintzan baserrian,
itzal haundiko intxaur arbol bat
dago gure atarian.

Haren ondotik irtenda noiznahi
maldako gaztainadian
edo sagarrik onenak jaten
luberriko sagastian,
arbol tartian bizitu nintzan
gazte denbora guzian.


Denak utzi ta etorri nintzan,
lur hau ikusi nahi nuan,
haritz tantaiak, pago lerdanak,
nola ez izan goguan!

Orain artzantzan Ameriketan,
arrantxo baten onduan,
eguna pasa larrian eta
jiratzen naizen orduan,
nere begiak gozatzen dira
aldameneko onbuan.

Hainbestearaino tristetutzen naiz
eremu zabal hoietan,
arbolak, mendi eta errekek
falta diran zelaietan,
nun etorri ta eseritzian
onbutzar honen zainetan,
edo igo ta hosto tartian
bere adar bikainetan...
ene, amatxo!, nik nola esan
zenbat gozatutzen detan!

Txabol ondoko onbu laztana,
maitatzen zaitut gogotik
eta bihotza erdibitzen zait
joatian zure ondotik,
nere burura ekartzen dezun
oroimen gozuagatik.

Zure itxura nahi det ikusi,
ez dizut eskatzen frutik,
ni hemen bizi naizen artian,
arren, egon zaite zutik!



Otañoren *Alkar* liburuaren azala

goak. Kontuz, ordea. Izan ere, nork esan lezake Xenpelar, Txirrita eta Uztapide, nahiz eta (oso) berrizale izan ez, berritzaile ez direnik? Eta, alderantziz, nork esango du Otaño, Basarri eta Amuritza, nahiz eta berrizale eta berritzaile izan, oso zaharzaile ez direnik? Arriskuak arrisku, Otañok egoki asmatu zuen berritzaile izan eta tradizioa maitatzen. Horrela jokatzuz, tradizioari eustera mugatu gabe, tradizioa biziberri-tu zuen. Hain hala, hura izan baitzuten

erreferente nagusi Basarrik eta Uztapidek, gerraosteko bertsolaritzaren indarberritzean. Horregatik esan lezake Juan Mari Lekuonak: «Gerra-aurrean eta gerraostean, bertsozaleek buruz ikasten dute Otaño, eta erreferentzia klasikotzat hartzen. Eta, nabarmenago dena, Basarrik eta Uztapidek eredutzat hartzen dute Otaño, jantzia delako, ugaria, euskara garbikoa, arrazoizkoa, errespetuzkoa, garaiko eskakizunei egokituagoa. Geroztik, Amuritza etorri arte, beharbada gehienik eragin duen maisua izan da Otaño bertsolaritzan».

Zizurkildarrek mendeurrenean antolaturiko ekitaldietan, izan zen bat oso berezi eta erakargarria: bertsolari handiekin eginiko saioa. Han kantatu zuen Pedro Mari Otaño Barriolak ere. Zehatzago esanik, Anjel Mari Peñagarikano izan zen Zizurkildarraren paperean kantatu zuena. Anoetarra beti izan da Otañoren miresle:

1.977-78an ginen. Ni ere, denak bezalaxe, soldadutzan nintzen. Artean ez zen ez objetore, ez insumisorik, desertoreren bat beharbada. Extremaduran nintzen, Badajozen zehazki esanda. Franco hil berria zen, demokrazia jaio berri. Etxetik urrun, oso urrun, bakardade



Itxaropena etxearen bitartez argitaratutako bertso liburua

puntu batekin, euskaldunak gutxi baikin. Zerbait irakurtzeko eraman behar-eta, Pedro Mari Otañoren liburuxka eraman nuen, beste batzuen artean. «Limosnatxoaren» bertsoak banekizkien. Hain kantatuak ziran... Ez ordea geroz irakurriko nituen haiek. «Indarra nagusi ta gogorrena juez» nere larruan bizi behar izan nuen, adjetiborik aurkitu ezin izan nion sarjentu harengandik hasita.

Gero onbuaren bertsoak, bera Arjentinan eta ni Badajozen. Pedro Marik adinako samina



Anjel Mari Peñagarikano Zizurkilen kantari, Pedro Mari Otañoren paperean (2010-V-15)

sentitzen nuen nik atariko intxaurpearekin. Nire jaiotetxe aurre-aurrean zen Gipuzkoako haundienetako bat, nere hartzaroa gogorazten zidan horrek.

Baina bene-benetan hunkitu ninduen «aitona gizagaixoa» izan zen. Non irakurriko eta han, euskara hizkuntza al zen egunero galdetzen zidaten hartan. Behin eta berriz irakurri nuen, dena eta oso-osorik buruz ikasi arte. Behin eta berriz isuri zitzaizkidan malkoak, herriminak jota, saminez beterik, euskara galduko zela sinetsita, etsia, nire maitemina betiko galdu izan banu be-



Otañoren irudia, Zizurkilgo plazan, gaur egun

zala. Irakurri ahala zinez ikusi egiten nuen aitona buru-txuria, ni neu hasten nintzen negarrez, esaten zuena guztiz sinetsirik. Ez nekien nola kontsolatu aitona gizagaixoa, ezta neure burua ere. Malkoak ziren nere

momentuko sendagai, zenbat aldiz irakurri, hainbeste aldiz negar egin. Barne-muineraino sartu zitzaidan, nire bihotza zulatu egin zuen Otañoren luma geziak. Geroz, abizen hori daramaten guztiei esaten diet Pedro Mari Otañori buruzko zerbait, eta batzuk ezagutu ditut!

Nire bihotza erdibitu zuen aitona gizagaixoa oraindik inoiz-inoiz ikusten dut, eta laguntzera joaten natzaio. Zenbat maite dudan baleki!

Barnetik idatzi du Anjel Marik, idazten ari dela ere negarrez ikusi dut, soldadutzako une gaziak berritzean hunkiturik. Esan liteke inoiz herriminik nozitu duenak, bertsolaritza batere bizi badu behintzat, nahitaez bigundu behar duela Otaño onbuzarraren zainetan eserita irudikatzean.

Pedro Mari Otañok ez zuen bertsotan hainbat aldiz jakinarazitako ametsa, hezurrak atariko intxaurrondoaren azpian uztekoa, bete ahal izan. Hil zenetik 100 urte bete ondoren ere haren bertsoekin hunkitzen jarraitzen dugu, ordea, begiak itxi eta haren laguntzaz intxaurrondotik onburako bidaia egiten dugun bakoitzean.

BIDOGULLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco